





# RKL INTEGRAL, S.C.P.:

## TELEFONICA UKren Negozioaren Jarraitutasun Planeko prozesuak automatizatzea



Jose María Sanz Yarritu  
josemari@rklintegral.com  
646321812  
<https://rklintegral.com/>

- 
-  **Jarduera:** Safety&Security-n espezializatutako aholkularitza eta ingeniari-tza, ikuspegi integral eta konbergentearekin
  -  **Sektorea:** Actividades de consultoría de gestión empresarial
  -  **Enplegatutako pertsonen kopurua:** 10
  -  **Lokalizazioa:** Alameda San Mames 37, planta 2, Dpto 1, 48010, Bilbao - Bilbo, Bizkaia

## NAZIOARTE mailako berrikuntza INKREMENTALA

### Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?

Pertsonen Negozioen Jarraitutasun Plan bat (enpresa batek duen plana, larrialdi baten ondotik funtsezko funtzioei eusteko) aplikatzeko jardunbideak aldarazten direlako; izan ere, Excel kalkulu-orri soil batetik prozesuen automatizazio-sistema baterako jauzia egiten da. Zehazki, dispositibo askoko (eta sarbide askorako aukeradun) plataforma batean oinarritutako negozio-jarraitutasuna kudeatzeko tresna bat aplikatu da: tresna horrek aukera ematen du egoera kritikoetan balibideak modu seguruan, automatikoki eta inteligentean kudeatzeko.

## KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

RKL Integral segurtasunean eta zibersegurtasunean espezializatutako aholkularitza eta ingeniari startup bat da, 2016an sortua. 2 pertsonen artean sortu zuten, eta egun 10 langile ditu.

Hasiera batean enpresak aholkularitza-zerbitzu tradizionalagoa eskaintzen bazuen ere, 2018 aldera bere jardura berritzeari ekin zion. Prozesu horretan, RKL Integralek CDTIren laguntza izan du, eta SPRIren Hazitek programetan hartu du parte. Produktu izarretako bat VES (Virtual Ecosystem for Safety&Security) Plataforma da: garapen propioko software soluzioa, erakunde batean askotariko segurtasun-mailak holistikoki kudeatzeko (azpiegitura kritikoetako arrisku fisikoak eta digitalak barne).

Ibilbide horrek ekarri zuen RKL Integralek 2020an lankidetzak-akordio bat sinatzea Ipar Ameriketako VEOCI multinazionalarekin, banaketari begira eta bere SaaS (softwarea zerbitzu legez) soluzioei buruzko aholkularitza emateko. Hain zuzen, erabiltzaileei hodeian oinarritutako aplikazioak erabiltzeko aukera ematen zaie. Soluzio horiek aukera ematen dute krisi-kudeaketako prozesuak, negozio-jarraitutasuna edo jakinarazpen masiboak digitalizatzeko larrialdietako kontrol-zentroetan. Akordio hori, Ipar Ameriketako multinazionalak Europako enpresa batekin sinatzen duen lehenak, RKL Integral VEOCIren balio erantsiko banatzaile baimendu gisa kokatu du (Value-Added Reseller, VAR), ahalmen eta ziurtapen guztiekin. Beraz, lankidetzak horren esparruan, RKL VEOCI sortutako softwarea konfiguratu du, bezeroaren beharrez araberak; hots, balioa ematen zaio aholkularitzaren bidez, tresna martxan jarri eta salmenta ondoko zerbitzuaren bidez.

Akordioaren ondotik, RKL Integralek berrikuntza berria sartu du Telefónica UK-n (Erresuma Batua): Negozio Jarraitutasuneko Planeko (NJP) prozesuak automatizatzean datza. Telefónica UK erakundeak interes nazionalako azpiegitura kritikoak kudeatzen ditu, eta RKL Integral kontratatu zuen, Erresuma Batuan dituen kontrol-zentroetako pertsona, prozedura eta zereginak automatizatzeko; hala, Excel orri batean oinarritutako sistema estatiko batetik sistema automatizatu batera igaro da, VEOCIren SaaS soluzioekin. Plantilla exekutagarrietatik abiatuta, kontrol birtualeko panel bat sortu da hodeian, Europako zerbitzari erreplikatuetan (% 99,99ko erabilgarritasuna dute) eta dispositibo askotatik sartzeko aukerarekin. Sistemak aukera ematen du giza akatsak saihesteko, erantzun-denborak hobetzen ditu eta inbertsioaren itzulera lortzea ahalbidetzen du. Sistema digital berritzailea da, eta pertsonak, ekipo teknikoak eta prozesuak denbora errealean zuzentzen ditu.

### Aurrekariak

RKL ikusi du, askotan, enpresek beren Negozio Jarraitutasuneko Plana (NJP) ekoizten dutela momentu jakin batean; baina, hori ez ohi da izan tresna arina eta erraz aplikatzeko krisialdian, eta horrek zailtasunak eragiten ditu arduradun bakoitzak bere zereginak argi izan ditzan. Gainera, erakundeetako segurtasuna (teknologiak, prozesuak, pertsonak...) oso zatikatuta dago. Horregatik interesatzen zaio RKLri prozesuen automatizazioa sustatzea, NJPak dokumentu estatiko izateari utz diezaion eta pertsonak, prozedurak eta zereginak koordinatzen dituen tresna bihurtu dadin.

### Erronka

Merkatuari dagokionez, RKL zailtasuna aurkitu du: bezeroei ulertarazi behar dizkie bere automatizazio-soluzioak, segurtasunaren sektorean erabili ohi direnak ez bezalakoak. Ez da erraza izan merkaturatu txoko zehatz bat aurkitzea zerbitzuak saltzeko. RKL aurre egindako beste erronka handi bat talentu falta da; hots, behar den softwarea garatzeko gaitasuna duten pertsonen falta. Halaber, erronka ekonomiko-finantzarioa dago: gaitasun espezializatu hori duten pertsonen kostua ordaintzearena.

### Ekintzak

- RKL 2016aren amaieran sortu zen.
- 2019an zehar berrikuntzari laguntzeko hainbat programatan parte hartu zuen, hala nola: Bizkaia International Startup Connection, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutakoa. SPRI taldeak ere laguntza eman dio enpresari, zenbait Hazitek proiekturen bidez; halaber, Innobasquek laguntza eman zion bere negozio-eredua Bideberri programatik eraldatzeko, besteak beste.
- 2020ko ekainean RKL Integralek lankidetzak-akordioa egin zuen Estatu Batuetako Veoci enpresarekin. Tresnak aukera ematen dio RKL Integrali SaaS (softwarea zerbitzu legez) soluzio bat izateko, larrialdi- edo krisi-egoeretan prozesuak digitalizatzeko, eta negozio-jarraitutasuneko planak sortzeko, hondamendietatik berreskuratzeko eta aginte- eta kontrol-zentroetatik jarduteko. Hala, RKL integral Veociren aplikazioen balio erantsiko banatzaile baimendu bihurtu da.
- 2020ko urrian Telefónica UKk RKL Integral kontratatu zuen, bere Negozio Jarraitutasuneko Plana (NJP) digitalki eraldatzeko.
- Telefónica UK-rako proiektuak 2020ko urritik 2021eko maiatzera bitartean iraun zuen. Denbora-tarte hartan RKL Integralek ahalegin handia egin zuen Telefónica UK-k bere Negozio Jarraitutasuneko Plana digitalizatzeko eta automatizatzeko prozesuan aurkeztutako beharrez guztiei erantzuteko, Excel kalkulu-orri estatiko eta eskuzko batetik abiatuta.

## Lortutako emaitzak

- RKL Integralentzat Veocirekin lankidetzan aritzea sarbide interesgarria izan da bere produktu eta zerbitzuen proiektioari begira.
- RKL Integrali esker, Telefónica UK-k negozio-jarraitutasuna eta langileak kudeatzeko tresna bat du. Hain zuzen, tresna horrek aukera ematen dio segurtasunez, automatikoki eta modu inteligentean kudeatzeko baliabideen erabilgarritasuna enpresako kritikotasun handiko hainbat postutan; halaber, zeregin eta atazen jarraipen xehea egiteko aukera ematen dio.
- Telefónica UK proiektua erronka betea izan da RKL Integralentzat; izan ere, ahalegin handia eskatu du (lana, ikastea, egokitzea...), baina emaitzak oso positiboak izan dira enpresarentzat:
  - a. RKLrentzat fakturazio handia ekarri du: garatu bitartean, enpresaren fakturazioaren % 20-25 proiektu honetatikoa zen.
  - b. Proiektuaren tamainak eta Erresuma Batuan gauzatzeak aukera eman du RKLk nazioarteko merkatuetan duen kokapena sendotzeko.

---

## KASUAREN KATEGORIZAZIOA

---

### Berrikuntza-eremuak:

- Produktua: Software-a.

### Aukera arloak:

- 1 - Eraldaketa teknologikoa/digitala

**José María Sanz (RKL Integraleko CEOa)**

«Ingurumen fisikoaren eta logikoaren zeharkako ikuspegia darabilgu, erakundeetako segurtasunaren kudeaketa-ereduak digitalki eraldatzeko».

**José María Sanz (RKL Integraleko CEOa)**

«RKL Integralen balio bereizgarria da segurtasunaz duen ikuspegi holistikoa, non mundu fisikoak eta logikoak bat egiten duten. Gure proposamena da segurtasuna modu automatizatuan eta inteligentean kudeatzea. Hala, erabaki zuzenak hartzen laguntzen dugu operatibetan eta erakundeen estrategietan».

**Innovation Index Score: ★★★★★**

Lerrotatze estrategikoa: ★★★★★

Kreatibitatea: ★☆☆★★★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★☆☆★★

Sistematizazioa: ★★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★☆☆★★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★☆☆★★

★

Eragina: ★★★★★★

Aintzatespena: ★☆☆★★★